

BALEIKE

200 pta.

62. zenb.



● Erreportaia:
Abertzaletasuna Zumaiian,
1931-1940

● Kalakariak
taldea
"Atrakoya"
antzezlan
berria
prestatzen
ari da

● Elkarrizketa
Koldo
Landaluze-
rekin

GEHIGARRI BEREZIA:
LUBAKI KIROLDEGIA

● Gotzon Enbil,
Euskal Herriko txapeldun

Gozatu udaz urte osoan zehar



 **902 123 456**
NaturGas, Euskadiko gasa



NaturGas



Sociedad de Gas
de Euskadi, s.a.

Grupo EVE

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faxes: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIAKO GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzardea

Xabier Azkue
Uxua Ostolaza
Aintzane del Pilar

Erredakzio batzardea

Antxoka Agirre
Esther Aizpurua
Eneko Dorronsoro
Ane Osa

Joseba Ossa

J.L. Romatet

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre

Gorka Zabaleta

J.L. Romatet

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Miriam Romatet,

Jon Manzidor,

Fototeka,

Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Iñigo Garcia

Argazkiak

Baleike

Aitor Bayo

Egunkaria

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri

Publizitatea

Uxua Ostolaza

(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia

(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Udazkena

Badirudi Baleikeren "ataria" kritikarako gune dela, hausnarke-tarako, salaketarako txokoa. Nik ez dut kritikarako gogorik. Egutero toki eta arlo ezberdinetan gertatzen denaz jabetzeaz, informazio bonbardaketaz, iritzi ezberdinak barneratu, hauek hausnartu eta ondorioak ateratzeaz, iritzi propio bat izan eta koherentea izateaz nekatuta nago. Eta ez da ika-mikarako gairik falta zaidalako: piszina berriak herrian sortu duen eztabaida, Udalaren superabita, Eusko Trenek autobus eta tren zerbitzuen prezioetan duen jarrera kontrajarria... Gaiak aukeran ditut, baina ez dut horretarako gogorik.

Sentsazioak proposatu nahi dizkizuet, egunerokotasunetik irten eta geure buruaz ahaztuz naturak eskaintzen dizkigun plazerrez gozatzea. Garai honetan gorostiek fruitu gorri eta guzti duten dotoretasunaz, perretxiko eta ondoek baso eta zelaietan zabaltzen duten usain heze eta sarkorraz, hostoen kolore aldaketak eta hauen erorketa geldiak guregan sortzen duten malenkoniaz, orbelak pausoa luzatzerakoan atera ohi duen krakateko lehorraz, sagardo egin berriaren muztio gorri gozo eta txakolinaren garraztasunaren arteko aldeaz, danbolinean erretzen ari den gaztainaren txipli-txaplatekoaz... gozatzea.

Zeure buruari, geure buruari, ihes egiteko aukera eman eta goza ezazu, goza dezagun, udazkenaz!!!



Esti Esteibar

Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra social



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Gotzon Enbil: "Mundiala irabaztea bezala izan da"

**Puntista zumaiarrak Euskal
Herriko Txapelketa irabazi
du Julen Bereikuarekin**

1996ko urriaren 6an egin zuen debuta profesionaletan, 19 urte zituela. Orduan, profesionaletan aritzearekin nahikoa zuela pentsatuko zuen, baina hiru urte baino ez ditu behar izan lehen txapela janzteko. Euskal Herriko binakako txapelketa irabazi du Julen Bereikua bizkaitarrarekin batera, zestako profesional onenak gaindituta. Gotzon Enbilek badaki hemendik aurrera beste begi batzuekin begiratuko zaiola, baina berak ez dio aparteko garrantzirik eman nahi.

Euskal Herriko Txapelketan profesionaletako bost bikote onenak izan dira lehian. Finalean, Bereikua-Enbil eta Egiguren-Felix izan ziren aurrez-aurre. Txapela janzteko bi partidu irabazi beharra zegoen. Lehena Markinan jokatu zen eta Enbil eta Bereikua nagusitu ziren, 35-29. Bigarrenetan, Gernikan, Egigurenek eta Felixek irabazi zuten 35-33. Azken partiduan, berriro Gernikan, Bereikua eta Enbil jaun eta jabe izan ziren: 35-20.

Espero al zenuen 22 urterekin profesionaletan horrelako txapel handia lortzea?



Hasi nintzenean ez. Baina gero jokatzeko hasi nintzenean eta neure burua Felixekin eta hauekin ikusi nuenean..., beti sartzen zaizu zerbait irabazteko gogo. Nik espero baino azkarrago hartu diot neurria mailari. Aurten belauneko lesioa izan dut eta udara arte geldirik egon naiz, baina gero ondo ibili naiz.

Profesionaletan beste finalik jokatu al duzu?

Pare bat eta biak galdu egin nituen. Urrezko Xixterako finala jokatu nuen Konparekin. Lehengo urtean Luis Marirekin (Alberdi) Espainiako Txapelketa irabazi nuen, baina oso maila eskasa izan zuen. Onenak ez ziren izan.

Euskal Herriko Txapelketa honetan, puntista onenak izan al dira?

Mundialaren maila izan du. Mundialean sei bikotek hartzen dute parte, eta hemen bost izan dira. Hortik aparte, ez dago ezberdintasunik,

Mundialeko bikoteak aritu dira. Saikapen fasean partidu bakarra galdu genuen, eta justu Egiguren eta Felixen aurka izan zen.

Finalera iritsita, aukerarik ikusten al zenuten aurrean Felix izanda?

Ligaxkan galdutako partidua oso orekatua izan zen. Finaleko lehen partidua Markinan izanda, bagenekien aukerak bagenituela, guretzako pilotaleku egokiagoa baita. Gernikako lehen partiduan beraiek bigatik irabazi ziguten eta oso ondo jokatu zuten. Azken partidua irabazteko moduan ginela ikusi genuen eta hala izan zen.

Zergatik esaten da Bereikua zestalari berezia dela?

Ondo datorrenean, serio jokatzen duenean, onena dela esan daiteke. Baina batzuetan urduri jartzen da, txorakeriak egiten hasten da eta berdin jarraitzen du, konturatu arren. Partidu asko horrelaxe galtzen ditu. Mikel Goñi bezalakoa da.

Hain gazte eta txapelarekin, zer esan dizute beterranoenak?

Garbi dago erreleboa datorrela. Finalean bertan, hiru zestalari gazte geunden, Bereikua, Egiguren eta ni. Gainera hortxe daude Luis Mari eta beste batzuk. Mundialean ere gazte mordo zegoen.

Gotzonek ez du ahaztu nahi izan bera bezala Zumaiatik gazte asko atera direla, une honetan profesionaletan ari direnak. Bizkaia aldean harrituta omen daude, baina berak badaki hori Manuel Mugerzarekin egindako lanaren fruitua dela. Txapel hau lehena izan da, baina ziur ez dela azkena izango.

◀ GORKA ZABALETA

7 Arrain eta mariskoak
MARES Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak
7 MARES IZZOITUAK Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

HARATEGIA
URDAITEGIA
ugustin
OL HARAKINA
Itzurun zuhaitzbidia, 1
Tel. 862430

AIZMAN-KOS S.L.
SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZA MATERIALAK
Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa
Tel. Faxe: 148124
20740 IRAETA- ZESTOA

Bariantearen trazatua onartu da

Badirudi Zumaiak hainbeste behar duen bariantea egiteko lehen pausoak ematen hasiak direla. Bariante honen trazatua behintzat egina dago eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eman dio Sestra ingenieriari proiektu horren gainean lan egiteko enkargua. Bariantea Torreaga ingurutik Txiki Erdira joango da eta tarteko bide guztia trenbideari paralelo egingo du.

Sestra ingenieria enpresa honek bariantearen trazatuaren proposamen bat eraman zuen Hirigintza Batzordera. Batzorde honi ez zitzaion asko gustatu Sestrak Txiki Erdiko enpalmearantzako proposatu zuena eta proiektu honi aldaketa batzuk egin zizkion. Hasiara batean, Sestraren proiektu originalean, Txiki Erdi inguruan, Narrondo ibaiaren gainean rotunda handi bat proiektatua zegoen. Udalak, bariantea Beduatik zetorren bideari lotzea eta ondoren Txiki Erdin,



Bariantea Torreaga ingurutik Txiki Erdira joango da eta tarteko bide guztia trenbideari paralelo egingo du.

orain Beduakoa eta N634 batzen diren lekuan, rotunda bat egitea proposatu zuen. Proposamen hori Sestrari interesgarria iruditu zitzaion eta Gipuzkoako Foru Aldundira eraman zen. Haiek baiezkua eman eta Sestrari proiektu berri horren gainean lan egin zezan enkargatu zion. Behin betiko trazatuaren proiektua onartzen denean expropiazio lanak hasiko dira, eta horren ondoren ohizkoak diren tramite guztiak. Hala ere, proiektu

horrek atzerapen bat izango du, Foru Aldundiak Sestrari Txiki Erdi eta Arroaren arteko bidea egokitzeko proiektua ere eskatu baitio, eta horrek, noski, Zumaiako bariantearen proiektuan aldaketa batzuk sortuko ditu. Bariantearen lanak 2002. urtean hastea espero da, baina honek, normala den bezala, atzerapenak izango ditu.

Etxebizitza berriak Arritokieta azpian



Hamabi etxebizitzako eraikuntza berri bat egingo da San Jose kaleko azken eraikinaren alboan, Arritokieta hermitaren azpian. Ezkiaga promotorea izango da etxebizitza hauek eraikiko dituen enpresa. Hasiara batean Zumaiako Udalak proiektu honetan sartu nahi zuen Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke, baina lur sailaren jabeek ez zioten saldu nahi izan lurrik Udalarari.

Hirigintza batzordearentzat, proiektu honen punturik interesgarriena eraikuntza honen ondotik joango den bide berria izango da, bide hori San Juan Egoitzara doan bidearekin batuko baita, eta horrela Zumaiako Alde Zaharrak beste irtenbide bat izango du. Bide oso hestua izango denez, ziur aski bide bakarreko errepidea izango da. Eraikin honen alboan aparkaleku berri batzuk egiteko asmoa ere badago, horrela San Jose kaleak duen aparkaleku arazoari irtenbidea emateko.


**ALBAITARITZZA
KLINIKA**
 DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
 IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
 -ALBAITARIAK-
 Larrialdiak
 - 24 ordu
 - zentru eixean
 Basadi, 7 behea
 Tel. 143310
 Tel. mugikorra: 908- 775508


Alberdi
Gizonetzkoen moda
 Erribera kalea, 6
 Tel. 861155


ANA
 ETXEKO ZAPIAK
 Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156



Ez zen erabat bete Errenteria-Oreretako Niessen areto dotorea, baina jende dezente inguratu zen, 150 lagun inguru, horien artean 20tik gora zumaiar (eta itziartarren batzuk) Jon, Joxe Joakin eta Lizarreta animatzera. Amaieran denak gustura, gure taldeak itxura ona eman eta hurrengo faserako sailkatzea lortu zuelako.

Saio batzuetan bi taldeak nahiko parekatuta ibili ziren, baina bakarkako lanetatik aurrera zumaiarrak alde handitzen joan ziren, hein handi batean Jon Maiak egindako lan handiari esker. Izan ere, aurreko saioetan bezalaxe, Jon primeran aritu zen ariketa guztietan eta berriz ere bakarkakoetan nabarmendu zen. Errima eta hitza emanda bertso borobilak bota zituen eta bakarkako azken lanean, berriz, karga emozional handiko hiru bertso. Hona azken puntuak, Basurton erretako behartsuaren ahotan kantatutakoak (lehen inork kasurik ez, orain loreak hildako tokian):

(...) hiru lorekin ez da garbitzen herri baten kontzientzia.

Zumaiarren oihartzuna handitzen ari da

Oiartzungo haize frexkoaren eta Zumaiako kresalaren arteko dema iragarri zuen Arkaitz Goikoetxeak Errenteriako bertso-kanporaketaren hasierako agurretan; amaierakoetan, berriz, Jon Maiak garaipenaren oihartzuna Zumaiaraino iritsiko zela jakinarazi zuen. Tarte horretan saio gorabeheratsua entzun genuen, eta azken puntuazioan alde pixka bat egon zen: 1.544 puntu Zumaiak, 1.481,5 Oiartzunek. Zumaiarren oihartzuna handitzen ari da Gipuzkoako Herri Arteko txapelketan.

(...) hipokresia erre dadila ni erre nauen su hontan

(...) bizitza hola bizitzekotan hobeto nago hilotza

Errenterian ez zen Jon bakarrik aritu, ordea. Joxe Joakin eta Lizarretak saio txukuna egin zuten. Joxe Joakin oso azkar hasten zen kantari, azkarregi batzuetan, gero bertsoa ondo osatzen zuen arren. Gairen bati behar bezala heldu ezinik jardun zuen, baina ateraldi politik ere izan zuen, tarteka. Lizarretak nerbioak mendeen hartu zituen eta, poto bat gora behera, seguru aritu zen ia ariketa guztietan.

Oiartzuarren artean Jon Martin 18 urteko gaztearen lana aipatu nahi genuke, bakarkako lan batzuetan "luzitu" egin zelako. Arkaitz Goikoetxeak ere ale ederrak bota zituen, baina meritua gutxitu egiten da abesten hasteko hainbeste denbora hartzen denean. Juanito Mitxelenari, azkenik, antzeman zitzaion ez dagoena horrelako lantegietan ohituta, gai batzuetan estu eta larri ibili baitzen.

Zumaiako taldeak, beraz, eskuratu du hirugarren faserako txartela, beste

bost talderekin batera: Zarautz Jai-Txiki (Egaña, Mantxi eta Zulaika), Erniope (Irazu, Amaia Agirre eta Txomin Garmendia), Azpeitia-Urraki (Lazkano, Gorrotxategi eta Urko Egaña), Urnieta-Andoain (Mendiluze, Sorozabal, Jon Garmendia eta Anatx) eta Azpeitia-Landeta (Lizaso, Leire Ostolaza eta Andoni Larrañaga).

Azkoitiko Baztartxo antzokian (12an) Erniope eta Urraki taldeak arituko dira; Lasarteko Kultur etxean (13an) Zarautz eta Urnieta-Andoain; eta Bergarako frontoian (azaroaren 20an), berriz, Zumaia eta Landeta. Hiru talde zuzenean igaroko dira (kanporaketa bakoitzeko onenak) eta laugarrena galdu dutenen artean puntuazio altuena jasotakoa izango da.

Bistan denez aurkariak oso gogorrak izango dira eta ez da batere erraza izango aurrera egitea. Guztion laguntzarekin ahaleginak egingo dituzte, ordea. Animo mutilak!!

◀ XABIER AZKUE

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407



Itzurun, 1 Tel. 143224



Kale nagusia, 2 Tel. 861521

Denok egin dezakegu gehiago presoan alde

Joan den urteko abenduaren 31n presoan aldeko manifestaziora deitu zuten hainbat elkartek eta alderdik: Senideak, Zumaia Udala, PNV, HB, EA, Zutik, ELA, LAB, ESK, Elkarri, Gestorak Ikasle Abertzaleak, Jarrai, Caritas, Zumaia Bizirik, Arte Taldea, Antzerki Taldea, AEK, Baleike, Pelota Elkartea, Arraun Elkartea, Musika Banda, Bertso Eskola eta Inda Mendi M.B.k bat egin zuten deialdiarekin, eta 1.500 herritar inguru atera ziren kalera herrian aspaldian egin den manifestaziorik handienera.

Herriaren erantzun onaren aurrean, eta gaiari zor zaion lana eskaintzeko, manifestazioan parte hartu zuten artean batzorde bat osatzeko premia ikusi zen. Honela jendea astero biltzen hasi zen Euskal Presoak Euskal Herrira lemarekin eta euskal preso guztien giza-eskubideen aldarrikapena helburu zutela.

Ordutik Bilboko manifestazio erraldoi hura eta beste hamaika ekimen, Giral-dillena kasu, egin izan dira presoan alde, baina egoerak, Madrilgo gobernuaren posturak, bere horretan dirau. Oraindik kartzelan dauden 500etik gora presoetatik 60 baino ez daude Euskal Herrian, zigorraren 3/4ak beteta edukitzeagatik kalean egon beharko luketen 100dik gora preso espetxean daude, eta baita gaixotasun sendaezinengatik kalean egon beharko



luketen mordoska bat ere, besteak beste. Ez dute euren legea betetzen.

Batzordea Zutik, EA, EH, Elkarri, AEK, EHE, Antzerki taldea, Espetxe-etako taldea, Senideak eta AABk osatzen dute egun. Hainbat ekintza (kontzentrazioak, bizikleta martxa, manifestazioa e.a.) antolatatu dituzte, batzuk besteak baino parte hartze handiagoarekin, eta Udaletxean mozio bat ere aurkeztu zuten. Ondorengo puntuak eskatzen zituzten bertan:

- 1- Aurrez onartutakoaren ildotik jarraituz, eta hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia delakoan, Euskal presoak Euskal Herrira oihala Udaletxeko balkoian jartzea euskal preso guztiak Euskal Herrira ekarri arte.
- 2- Udalak EPEH batzordeak egingo dituen deialdiekin bat egitea eta bere aldetik deialdian parte hartzeko deia egitea.
- 3- Antolatuko diren ekintzak aurrera eramateko materiala eskaintzea eta beharrezkoa izanez gero, gastuetarako laguntza ematea (fotokopiak e.a.)

Plenoan, EAJ-ek abenduan erakutsitako jarrera aldatu eta atzera bota zituen eskakizun horiek.

Batzordeak, udaran zehar kamisetak salduaz bildutako diruarekin aurre egin ahal izan dio 3. puntuari, baina beste biak ez daudela beren esku diote. "Oihala geure etxeko balkoietan jarri eta gure ingurukoei antolatzen diren ekimenetan parte hartzerantz animatzea da guk egin dezakeguna" komentatzen dute.

Udara ostean herriko talde, asoziazio eta elkarte guztiakin harremanetan jartzea erabaki zuten, ordurarte batzordeak eragile bezala funtzionatu bazuen bultzatzaile soil izatera pasako dela adierazteko. Honekin pixkanaka denon inplikazioa lortzea dute helburu, eta hilean behin antolatuko duten konpromiso egunaren bidez herritarren ideiak jaso nahi lituzkete. Bestalde, talde gehiagoren inplikazioa, eta alderdi batzuen (EAJ, PSOE) beharrezkoa dela ikusten dute. "Batzordea guztiz irekia da, eta denon parte hartzea beharrezkoa, espetxe-etako egoera ez baita aldatu" diote. "Denok egin dezakegu gehiago presoan alde".

Datorren hilerako zenbait ekimen bideratuak dituzte jada.

AUTO-ESKOLA

ZUMAI A

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea Tel. 861018

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



Abertzaletasuna Zumaian 1930-1940

Irakatsi ez ziguten historia

Etxe gehienetan kontatu eta entzun izan dira Gerra Zibila eta diktadura garaiko kontuak, eta etxe gehienetan badago kajoi edo karpetaren bat garai hartako paperak, Vivaspañas beteriko kartazalak, gerran hildako senideen eskelak, kartzetako dokumentuak e.a. gordetzen dituenak. Ezer gutxi dakigu, ordea, auzokoak edo lagunaren familiak jasan behar izan zuenaz, herrian gertatu zenaz. Hainbeste urteren ondoren gerra hartako galtzaileen memoriak mila puskatan txikituta jarraitzen du. Joxeba Esnalek istorioak eta dokumentuak etxeetatik atera eta joan den hilean Batzokian ikusgai egon den 'Abertzaletasunaren historia zumaian:1930-1940' erakusketa osatu du. Hura pasa zutenei merezitako omenaldia egin eta gazteagoei amnesiaren aurkako txertoa emateko.

Hasi ere bere etxean gordeta zituzten dokumentu batzuetatik hasi zen Joxeba. "37an Zumaiatik kanporatu zituztenean zerrenda geneukan etxean, garai hartan Xabier Albizu zinegotziak, Manuel Aizpurua, egun Aiako apaiza denak, eta nire aitak egin" kontatzen du. Lista ez zegoen osatua. Haurren izenak falta ziren, batzuen adinak e.a. eta Joxeba garai hartako erroldan ikertzen hasi zen hutsune horiek bete nahian. Erroldan bilatu ezin zituenak osatzeko zerrendan azaltzen zen jendearen etxeetara jo zuen ondoren. Etxe horietan, berean bezala, garai hartako dokumentu eta oroitzapen mordoa gordetzen zela ikusi zuen, eta bilketa lanari ekin zion. "Ni ez naiz profesionala, ez historiadorea eta ezta ikerlaria ere, polizia municipal soil bat naiz, baina etxean asko bizi izan degu

istoria guzti hau, eta hasi bezain pronto gehiago jakiteko harra barruraino sartu zitzaidan" dio.

"famili bakoitzak bere Historia dauka, urteetan etxeko lau paretetatik atera ez dena, eta kontatzeko kriston gogoia"

Duela bi urte ekin zion bilketa lanari. Zumaiaiko Artxibo Historikoan, Sabino Arana Fundazioan eta Abertzaletasunaren Artxibo Historikoan aritu da jo ta fuego bila, baina Zumaiaiko familiak izan dira bere iturri nagusia.

"Arratsaldeko hiruretan sartu etxe batera eta zortzirak aldean afaria eskainiko zidaten" kontatzen du; "... nondik nora ibili naizen, zer topatu dudana jakin nahi zuten. Gero famili

bakoitzak bere historia dauka, urteetan etxeko lau paretetatik atera ez dena, eta kontatzeko kriston gogoa”.

Edurne Eginoren aita motor batekin enlaze lanetan aritzen zen frentea eta Euskal Gobernuaren artean, eta joan-etorri horietako batean hil egin zuten nazionalak. Edurnek etxean gordeta zeuzkan gorpuarekin batera aurkitu zituzten dokumentuak: Batailoiei helarazitako bost mezu hauen seilu eta arduradunaren firmarekin, EGiko karneta, EBBko lehendakari zen Ramon de Azkueri bidalitako gutuna eta honen erantzuna, motorraren baimena eta gasolina hartzeko 'bale'ak. Jose Antonio Agirrerren argazkia ere utzi du erakusketarako, alargunari eskainitako dedikatoria bat duena.

Francisco Elosua 'Bou Gipuzkoa'n aritu zen borrokan Nazionalen itsas-armadaren aurka. Harrapatu zituztenean ikurrina kendu zieten, eta bandera nazionala altzarazi, baina ikurrinari eusteko erabiltzen zuten korrea gorde egin zuen. Etxean izan dute hirurogei urtean, garbitu eder bat eman eta Joxebari erakusketarako utzi dioten arte.

Joxe Manuel Prieto eta Joxe Mari Etxabe Frantziara ihesi zihoazela harrapatu eta Gros-eko kartzelara eramán zituzten. Kartzelan ateratako

argazkia, gerra kontseiluaren sumarioaren kopia bat, baldintzapeko askatasunaren agiria...

Eta honela dozenaka famili, dozenaka historia eta ehundaka dokumentu.

Urriaren 4an ireki zen erakusketa Batzoki zaharrean, eta bildutako materiala bost bitrina eta panel eta sekzio desberdinetan banatu zuen Joxebak. "Erakusgai dagoen guztia Zumaia eta zumaiarrekin erlazioatuta dago" komentatzen du. "Gero, erakusketa inpartzial bat egiten saiatu naiz. Batetik, erakusketa Batzokian egin den arren ez da PNVren historiari buruzkoa, errepublikanoen frentean egon ziren guztiena baizik, eta bestetik komentariarik ez dut batere jarri, bilatu dudana jartzera mugatu naiz" laburtzen du erakusketaren filosofia.

Aretoaren erdialdean dauden paneletan garai hartako kronologia osatu du. 'Zumaia abertzalea' deritzona da lenengo etapa, 1930etik 1936ra bitartekoa: Herrian egin zen errepublikaren aldarrikapena, 31ko Lizarrako Udalen biltzarra (Zumaia izan zen eratzailleatariko bat eta udal korporazio osoa joan zen banda eta guzti aurkezpen ekitaldira), eta Batzokiaren inguruko dokumentuak (inagurazioa, Juntak, korua, JEL izena zuen trainerua...) jasotzen ditu batik bat.



Batzokian ikusgai egon den erakusketa.



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433

Faxa: 861067


Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

balezulo

importaturiko enropa eta artisautza



Basadi, 3

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449



BARRENETXEA
Garraioak
GARRAIO ASTUNAK



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25

Tel. 862073



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051

DORNUTEGI

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK

Bigarren etapa gerrate zibila lehertu eta faxistek Udala hartu zuteneko litzateke, 1936tik 1940 bitartekoa. Hemen urterik urte Udal artxibategian aurkitu dituen akta guztiak jaso ditu paneletan.

“Lurdes Odriozola aritu zait laguntzen, eta hark dioen bezala Zumaiaiko Artxibo Historikoa inguruetan dagoen konpletoenetakoa da. Baina urte batzuetan bastanteko hutsuneak nabaritzen dira. Norbaiten koltxoi azpian egon behar du dokumentu mordo batek” komentatzen du Joxebak.

Sekzioak gaika daude banaturik. Emakume Abertzaleen Batzaren

Etkez-etxe bildu ditu Josebak dokumentu eta argazki asko.



ingurukoa, Gernikako bonbardeaketaren ingurukoa, klandestinitateko Euskadi Irratiari buruzkoa, herriko gudariei buruzkoa...

Errepresioari buruzkoa da bere hitzetan osatuena dagoena eta lan gehiena eman diona.

“abertzale izateagatik eskolatik bota zituzten maisu eta maistrak ere egon ziren”

Abertzaleak edo gorriak zirelako, edota gorrien zonan senideren bat zutelako, 252 zumaia kanporatu zituzten herritik. “Aurretik ihesi joan behar izan zutenak kontatu gabe” seinalatzen du Joxebak. 252 horietatik 157 haurrak ziren, 83 emakumeak eta gainerako 15ak gizonezkoak. Lorenzo Sebastian Garcia ikerlariak osatu zuen ‘Gipuzkoako kanporaketen mapa’ ere jaso du panel batean, eta beste herrietako datuei begiratu bat emanda (Deba 4, Getaria 24, Zarautz 88, Donostia 12 e.a.) errepresioa Zumaian inon baino gogorragoa izan zela ikus daiteke. Zergaitiaz galdetuta herriko faxistak seinalatzen ditu Joxebak. “Udaletxetik, herriko jendeak beraz, erabakitzen ziren kanporaketak” dio. “Hemengo faxistak etziren nolana hikoak izan. Alkateak, Cosme Iraundegui, harremana zuen Franko-ekin, berari bidalitako gutun bat ere jaso dut erakusketan, eta parrokoa, Venceslao Mayora, Queipo de Llano Jeneralaren laguna zen... Durangoko artzipreste egin zuten ‘por los servicios prestados’” gaineratzen du.

Kanporatuek hilabetetako odisea jasan izan behar izan zuten Bizkaian zehar

herri batetik bestera, eta lau hil egin ziren bidean: Xabier Golmaio eta Belen Manterola, biak urtebeteko haurrak, Agustin Aizpurua bederatzire urtekoa eta Dionisia Manzisidor hemeretzi urtekoa. Zortzi argazki ere badaude, Agirreren argazkilaria zen Pedro Basalduak ateratakoak. Kosovo edo Bosniako irudiak dirudite, baina aurpegiak Zumaiaikoak dira, ezagunak.

Hamabi fusilatu ere egon ziren, hiru emakume ‘aceite ricino’ eman eta hilea zerora moztuta banda munizipala atzetik joka zutela herrian bueltara ibili zituzten “horrelako bejazioak egin zituzten” dio Joxebak, eta abertzale izateagatik eskolatik bota zituzten maisu eta maistrak ere egon ziren.

Gainerantzean, bitrinetan gordeta edo hormetatik zintzilik denetarik aurki daiteke erakusketan. Errepublikara goraian Batzokian antzeztu ziren ‘Jesusen Jaiotza’ eta ‘Antton Kaiku’-ren originalak. ‘Euskal ereserkiak’ izeneko orduko kantu liburu bat Joxebaren hitzetan Rafael Aizpurua erabat interesatua daukana. Errepublikano batek erabilitako eskopeta arkaiko bat. Italiarrei kendutako medailak; “uste det zumaiairek italiar dexente enterratu zituztela” komentatzen du. Zumaiaiko ontzioletan errepublikar ejertzitoarentzako montatu ziren ‘Bou goizeko izarra’, ‘Bou iparreko izarra’ eta dragaminas batzuen argazkiak. Salbokonduktoak, multak, errepublikako diruak. Eskola nazionalan espiritu nazionala garatzeko jartzen zituzten ariketak: letra izugarri txukunarekin egindako himnoen transkripzioak, Generalismoari buruzko idazlanak e.a.. Garai bakoitzeko egunkarien lehen orri batzuk. Franko hil ondoren Udale-



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



**OSKARBI
KIROLAK**


Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



txean jarri zuten lehen ikurrina, berrogei urtean etxean gorde ondoren irratitik legalizatua zegoela entzutearekin batera familia batek eraman zuena. Udaletxeako pleno aretoan, Frankoren argazkiaren azpian aurkitu zuten koadroa, "31n enkargatu zuen Bitoriano Arrate alkate abertzaleak, eta Gernikako arbolaren inguruko biltzar bat irudikatzen du, albo batean Zumaiako harmarriari eusten dion emakume bat azaltzen dela. 40 urte egon zen Frankoren argazkiaren azpian" esplikatzen du Joxebak; e.a, e.a.

Gustora ibili da bilketa lanetan "historia hau apasionantea iruditzen zait, asko ikusi eta ikasi dut" dio, eta gustora

dago baita erakusketak izan duen erantzunarekin. "Jende asko pasa da ikustera, Batzokian izan arren alderdi desberdinetako jendea gainera, eta denei asko gustatu zaie" egiten du balorazioa. Sabino Arana Fundaziokoak ere etorri omen zaizkio dokumenturen bat erosi nahian, baina ezbairik gabe hura bizi izan zuen jendea izan da erakusketa gehien eskertu duena. Kanean gelditu eta etxera ere deitu izan diote eskerrak eman eta horrelako zerbait egin beharra zegoela esateko, gordetako gauza gehiago ere ekarri dizkiote erakusketara, edo erakusketan bertan zerrendak osatzeko datuak ere eman izan dizkiote. "Asko pasatako jendea

da, eta inoiz inolako errekonozimendurik izan ez duena. Zorretan gaudenak geu gara, ondorengoak, geuri tokatzen zaigu eskerrak ematea" dio Joxebak.

***Barkatzearena
bakoitzak ikusi
beharko du, bestiek
barkamenik
eskatzen ez duten
bitartean zaila***

Ez dauka garbi bildu duen materialarekin zer egin beharko litzatekeen. "Base bat dago hemen, oso ona, lan sakonagoa egiteko. Zumaiako historia da azken batean, eta Udaletxeak hartu beharko luke nere ustez, agian beste tratamendu bat emango liekeen profesionalen bati uzteko" azaltzen du buruan daukan ideia.

Bere aldetik erakusketa itxi bezain pronto bilduma lanarekin jarraitzeko gogo biziz omen dago. "Esaten den bezala 'se perdona pero no se olvida'. Barkatzearena bakoitzak ikusi beharko du, bestiek barkamenik eskatzen ez duten bitartean zaila, baina ahaztu, nor garen eta non gabiltzan jakin nahi badugu behintzat, inola ere ez da ahaztu behar" dio.

◀ ANTOKA AGIRRE

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Europa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670

OPTIKA ZUMAI A



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A



Basadi Auzategia, 9-A 2-B

ekin
elektrizitatea, s.l.
instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antena - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Televés
Instalador
Oficial


MoviStar

MoviLine

Erribera, 18
20750 Zumai a (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

CANAL+

SATELLITE
CANAL DIGITAL



Koldo Landaluze:

“Batuetan Zumaiak herri fantasma bat dirudi”

1965ean jaiotako bilbotar hau Egin Irratiko “La linterna mágica” saioaren sortzailea eta Gara egunkariko zine kritikoa izateaz gain, pasa dugun abuztuan irekitako Taosa liburudendaren jabeetako bat da. Bere iraganaz, orainaz eta etorkizunaz aritu gara Peter Bagge, John Ford, Edgar Allan Poe eta Athleticen jarraitzailea den adopzioko zumaiar honekin.

❑ Egin Irratian lan egin zenuen. Nola sartu zinen irrati mundu horretan?

Komikiei buruzko irrati saio bat egiten hasi nintzen eta handik urtebetera gaueko saio bat egiten hasi nintzen, elkarrizketak etab. Irratiaren programazioan tarte bat sortu zen, talde bat elkartu eta “La linterna mágica” saioa egiten hasi ginen. Taldea Mikel Insausti, Jesus Mari Begoña, Kepa Sojo eta nik osatzen genuen. Egin Irratian hasi aurretik Bilboko Santutxu auzoko irrati batean lan egin nuen, Bilboko lehen irrati librea izan zenean.

❑ “La linterna mágica”ren ideia zeurea izan al zen?

Bai. Hasera batean, saio hau zineko musikaz bakarrik osatua zegoen, ez zegoen pelikulen kritikarik. Gero konturatu ginen bazegoela jende bat zineari buruz hitz egiteko gogoia zuena, eta saiora ekartzea posible zena. Ez derrigorrez zine munduan mugitzen zen jendea, agian zine fantastikoari buruz liburu bat

argitaratu zuen idazle bat ezagutzen genuen, eta berari elkarrizketa bat egiten genion, edo bestela Alfonso Sastre bezalako idazle bat ekartzen genuen eta zineari buruz hitz egiten hasten zen. Egunero gauza desberdin bat egiten genuen: larunbatetan Mikel Insaustirekin asteburuko estreinoak komentatzen genituen, astelehenetan saio hori errepikatzen genuen, asteartean Kepa Sojo zuzendari bati buruz aritzen zen, asteazketan elkarrizketa bat, ostegunetan Jesus Mari Begoñak filmetako musikez hitz egiten zuen eta ostiraletan musika bakarrik zegoen. “La linterna mágica”rena sorpresa bat izan zen, ze ondo konsolidatu zen, jendeari gustatzen zitzaion, eta gero gertatu zena gertatu zen.


❑ Barrutik nola bizi izan zen Eginen itxiera?

Imajina ezazu, urte batzuetan egunero lanera puntual joan, eta egun batean ezin duzula sartu. Kale gorrian utzi gintuzten, langabeziaren dirua

jasotzeko ere lan ugari egin behar izan genuen... Langilearen eskubide guztiak pikutara bidali zituzten. Hori langile bezala. Bestetik, ideologia aldetik, jokaera faxista bat erabili zuten, ze mintzaera eskubide guztiak zapaldu zituzten. Komunikabidearen ideologiarekin ados egon zaitezke ala ez, baina ezin duzu nahi duzulako dena deuseztatu. Inpotentzia handiarekin bizitzen da, inpotentzia eta haserre.

❑ Ondoren Garan hasi zinen lanean.

Niri zine eta telebistako filmeen kritikak egitea eskaini zidaten, eta ordurarte Egineko zine kritikaria zen Mikel Insaustiri, asteburuko gehigarriko lana eskaini zioten. Mikel, ordea, Egin itxi ondoren Euskadi Irratian hasi zen lanean eta baita ere Astigarragan bideoklub bat zuenez, ondo etortzen zitzaion lan eskaintza hori. Niretzat esperientzia berria zen eta onartu egin nuen.



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

❑ Bai irratian eta bai egunkarian beti ere zinea joratu duzu. Nola sortu zitzaizun zinearen zaletasun hori?

Gehienbat aitarengandik heldu zitzaidan, asko gustatzen baitzaio. Gogoratzen dut, txikitan filmeak ikustea uzten ez zidatenean, atearen zirrikitutik ikusten nituela pelikulak. Hori egun batean harrapatu zidaten arte. "El planeta de los simios" zirrikitutik ikusten ari nintzela, aitak buelta eman eta bertan harrapatu ninduen. Orduetik aurrera berarekin ikusten nituen pelikulak. Denok bezala, hasieran telebistaren bidez, eta gero zinera joanaz sortu zitzaidan zaletasun hori. Edadean aurrera joanda, Bilbon aste osoan zehar filmeak ikusteko aukera zegoen: larunbat eta igandean kartelerako filma normalak, astelehen eta asteartetan zine kluba, gero Arte Ederretako museoa zikloak, hori nik Nicholas Ray eta François Truffauten ziklo osoak ikusi ditut, eta gero konturatu gabe osteguna zen, deskantsoa hartu eta ostiralean berri zina. Lehen zine areto batzuetan zine maratoi ugari zeuden, asteburuero fakultade batzuk maratoiak antolatzen zituzten, gozamina zen! Gaueko bederatzietan sartu eta agian goizeko zortzietan ateratzen ginen.

❑ Astero bizpahiru kritika egin behar, pelikula eskasak, hamar eguneko zinemaldiak... Gogorra al da zine kritikoa izatea?

Astean bada behintzat ikustea merezi duen filma on bat. Beno gabonetan eta udan kenduta, klaro. Badira "zorte txarreko" asteburuak hiru filma on estreinatzen direnak, eta bien kritikak egin behar dituzulako, bat galtzen duzuna. Zinemaldietan, aldiz, oso

nekatuta bukatzen duzu. Alde batetik, filmeak ikusten disfrutatu egiten duzu, baina zinemaldiaren erdira heltzen zarenean nekatzen hasten zara. Iraneko filma horietako bat jartzen dizutenean errematatu egiten zaituzte.

❑ Pasa dugun abuztuan Taosa liburudenda ireki duzue Zumaian. Halako beharra ikusten al zenuten?

Bai, beti gustatu izan zaidan gauza bat da irakurtzea, ikusten genuen herrian halako liburudenda baten falta zegoela eta abenturan sartu ginen. Baina ez dugu nahi izan liburudenda soil bat bakarrik izatea, zerbait biziagoa egitea pentsatu genuen. Froga egin eta ea nola ateratzen zen.

❑ Urritik aurrera hitzaldiak antolatzen hasi zarete.

Hilean behin halako hitzaldiak antolatzea erabaki genuen, idazle bat ekarri bai bere liburuaz eta bai beste zerbaitez hitz egin zezan. Lehenengo hitzaldian, Edgar Allan Poeren heriotzaren urteurrena zela eta Alfonso Sastre dramaturgoa ekarri genuen. Poeren gaia zen garrantzitsua nahiz eta Sastre berak egin duen lanagatik merezi duen bestela ere hitzaldi bat.

❑ Zergatik Alfonso Sastre?

Niri beti gustatu izan zait Edgar Allan Poe. Irratian nengoenean behin baino gehiagotan egin nizkion elkarrizketak Alfonso Sastri eta ikusi nuen berak ez zuela idazle batez soilik hitz egiten, lagun batez aritzen zela baizik eta gainera oso ondo komunikatzen zuela. Gainera Poeren gaiak guztiz maite-minduta dago Sastre. Horrela bi helburu batera lortu genituen: Edgar Allan Poetz hitzegitea eta gainera nork, eta Alfonso Sastrek. Gainera Poeren heriotzaren 150. urteurrena betetzen zen egun bertan, zer egokiago.

❑ Ze irizpide erabiltzen dituzue hizlariak ekartzeko?

Hasiera batean nahiko irekiak gara. Ez derrigorrez, baina komenigarria izango litzateke zertxobait lehenagotik liburu berri bat argitaratua izatea. Orain Txillardegiren atzetik gabiltza, baina oso lanpetuta omen dago eta beraren ordean Edorta Jimenez ekartzekotan gara. Honek orain gutxi "Balearen barbaroa" liburu kaleratu du. Liburu honetan euskal kostako abenturak eta mitoak kontatzen ditu: piratak, kontrabandistak etab. Hitzaldiez gain, diapositiben emanaldiak egiteko asmoa dugu, bidaia interesgarriak egin dituzten jendearenak.

❑ Alfonso Sastren hitzaldian denda "kulturzulo" bezala definitu zenuen. Zumaia mailan kultur ekitaldirik antolatzeke asmorik ba al duzue?

Polita izango litzateke herriko kultur elkarte denak batu eta halako aste kultural bat antolatzea. Zine taldearekin, antzerki taldearekin, hauekin hitz egin eta zerbait dinamikoa egin, ze batzuetan Zumaia herri fantasma bat dirudi, ez dago mugimendu handirik poteoan izan ezik. Nik uste dut zerbait egin behar dela herria dinamizatzeko, eta halako aste kultural bat antolatzea polita izan liteke.

❑ Azkena, zer iruditzen zaizu Clemente Errealeko entrenatzailea izatea?

Azken urteetan ikusi dudana gauzarik handiena da. Barakaldoko errubioa Erreala entrenatzen, joder!

◀ JUAN LUIS ROMATET

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6 Tel. 943 14 33 95

expert



ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etxezarreta, 6 Tel. 861078

STWART SHOW

Hasi da Showa eta
hemen dugu Stwart!

Pelotekin nagusi.
Aupa Stwart!


Monozikloan ere
ez du parekorik.

Stwarten azazkala.
Dimentsio handiko azazkala.


apata kendu
a behatzeko
azazkala erakusten
gu. Jendea barrez
hertzen ari da,
a ez da gutxiagorako.



Oh! Stwartek Showa bukatzeko onena gorde digu: ZAKIL ROTAZIOA. Zakila maisutasunez mugituz eta rotazio azkar baten bitartez hegan egitea lortzen du.



...eta badoa Stwart helikoptero bat bezala, hegaldi izugarri polita eginez.



Agur mutilak! Hurrenarte!

-END-END-

(EGUNKARIAN STWART-I EGINIKO ELKARRIZKETA INTERESAGARRIA)

- Noiz, nola, eta zergatik sartu zinen pailazo?
- ***.Ez dakit.***
- Zakil rotazio azkar hori nola lortzen duzu?
- ***Konzentrazioa behar dela uste dut, beno konzentrazioa eta ... (barreak).***
- Zer eramango zenuke irla desertu batera?
- ***Ez nuke ezer eramango. Aspertu orduko ihes egingo nuke zakil rotazio sistema erabiliz..***
- Eta bukatzeko, zer iruditzen zaizu Bonilla, Errealaren azken fitxaketa?
- ***Beno... banan banako jokaldietan habilezia handiko mutila dela iruditzen zait. Baloia oinetan duela abiaduraz mugitzen da aurkako defentsa hautsiz. Gainera buruz nahiko ondo dabil. Maila polita eman dezakeela uste dut.***
- Hala espero dugu.



21 Agenda, ingurugiro arazoei aurre egiteko tresna

70ko hamarkadatik etengabe ari da hitz egiten garapen jasagarriaz, baina kontzeptua ez da batere berria. XVIII. mendeko ekonomilariak erabiltzen zuten jada, inguruneak gizartearen garapenari ezartzen dizkion mugekin kezkatuak. Euren aburuz, mugarik gabeko garapena jasanezina litzateke ingurunearentzat.

Dena den, teoria honek ez zuen arrakastarik izan, eta garapen basatiaren alde egin dutenak nagusitu ziren, eta mende bat baino gehiago pasa ondoren indarrean jarraitzen dute. Teoria horiek dira ingurunearen hondamena ekarri eta Lurra egoera jasanezinean jarri dutenak.

Inguruneak jasandako suntsipenak kezka handia sortu zuen 80ko hamarkadaren azken urteetan, eta orduan honela laburbildu zuten garapen jasagarria kontzeptuaren esanahia: "Unean uneko belaunaldiaren beharrak asetzen dituen garapena, etorkizuneari etorriko direnenak baldintzatu gabe". Horrela, garapen jasangaitzak honako ezaugarriak ditu:

- Natur baliabideak eta oinarritzko funtzioak errespetatzea eskatzen du.
- Giza helburuak hobesten ditu norbanakoaren gainetik.

- Belaunaldien arteko elkartasuna bultzatzen du; baita belaunaldi berekoen artekoa ere.
- Hazkundera mugak jartzen dizkio.
- Beharrezkoa al da ingurugiro arazoetan bustitzea?

Zalantzarik gabe. Garapen jasagarriak zera eskatzen du, ezin dugula gainditu inguruneak gure ekintzen ondorioak jasateko duen ahalmena eta, ahal den neurrian, Lurrari kendutako baliabideak itzuli egin behar dizkiogula. Industrializaturiko herrialdeok berriro ezin daitezkeen baliabideak ustiatzen ditugu, eta kutsagarriak edota arriskuetsuak diren hondakinak pilatzen ditugu. Egoera zentzugabea da, eta ezin da gehiago luzatu airea, lurra eta ura betirako hondatu gabe.

Gainera, badira arrazoi gehiago ingurunearen babesean eta hobetzean parte hartzeko:

- Ingurugiroaren babeserako legedia halabeharrez bete beharreko tresna da.
- Ingurunearen hondamenak eragin zuzena eta kaltegarria du giza osasunarengan, zein gure hiri herrietako bizi kalitatearen mailan. Osasun arazoei lan egiteko ahalmena gutxitzen dute, eta horrek eragina du norberaren ekonomian.
- Gaur egun industriak ez ditu kontuan hartzen ingurugiro kostoak produkzioari prezioa ezartzerakoan, eta etorkizuneko belaunaldi edota garatu gabeko herrialdeen kargu uzten da.
- Zientziak garapen handia ezagutu du, baina oraindik ez gara biosfera sistema oso bat bezala mantentzeko gauza, eta

hondatzen bada, ezinezkoa izango da ondorioei aurre egitea. Adibidetzat har daitezke berotegi efektua edota azken urteotako natur hondamendiak.

21 Agenda


1992an Nazio Batuek Ingurugiroa eta Garapenaren gaineko Konferentzia burutu zuten Rio de Janeiron, eta ordutik hiri zein herrien garapen jasangarriaren aldeko mundu mailako mugimendua jarri zen martxan. Abiapuntua 21 Agenda da. Ingurugiroa eta Garapenaren gaineko Rioko Adierazpenak biltzen dituen 27 puntuak indarrean jartzen ditu programa honek. Balio handiko dokumentua da, ingurugiro krisia dagoela onartu, eta berau gainditzeko neurriak lehenbailehen hartu behar direla azpimarratzen duelako.

21 Agenda nazioarte mailako kontsentitutik jaio zen. Gaur egun inguruneak dituen arazo larrienei heltzen die, eta Lurra datorren mendeko erronkei aurre egiteko prestatzen saiatzen da. Garapen jasangarria du ardatz, eta ekonomia, gizarte, kultura zein ingurugiro arazoak globalki aztertu behar direla aldarrikatzen du emaitzarik lortu nahi bada.

Agendaren 28. atalak agintari eta herritarren arteko hartuemana aldarrikatzen du, guztien artean Lekuan Lekuko 21 Agenda osatzeko, hau da, epe luzera udalerriko ingurugiro ekimenak bilduko dituen plana. Herri bakoitzeko 21 Agendak Rioko Adierazpenaren helburu orokorrak bildu beharko ditu, eta ingurugiroa babesten eta hobetzen lagunduko duten ekintza eta plan jakinetan haragitu.

Badira gure inguruan prozesu honetan abiatu ziren hainbat udalerrri, Tolosa, Eibar eta Astigarraga, besteak beste. Denen parte hartzearekin, ingurugiro arazoei adosturiko irtenbideak bilatzen saiatu nahi dute. Hurrengoa Zumaia izango ote da?

◀ GONTXALO TORRE, GORKA ZABALETA



Amertze

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 861707

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabrilari eta herriko argietan

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua



Amaiako plaza z/g Tel. 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

English School
Harvest

San Jose, 11 bis Tel. 143334



HORBEL
PAPER-DENDA


HELBIDE BERRIA!!

Basadi, 7 behea
Tel./Faxa: 943 14 34 53

Plaieroak, azkenean bai

Aspaldiko urte hauetan Itzurunen ohikoa den eran, aurtengoan ere plaieroak gozatzeko aukera izango dugu, mareak uzten duen asteburutan. Jakina da honez gero, aurten Zumaiako Futbol Taldeak ez antolatzea erabaki duela, ia bi hamardakatan ardurua horretan ibili eta gero. Jende falta argudiatu dute. Hori ikusirik, plaierotan jarduteko gogo zuen jendea mugitzen hasi, eta azkenean, eta partaide guztien lanaz, hasierako helburua bete da, hilaren 13an emango baitzaio hasiera lehen ligaxkari, aurreneko partiduekin.

Aipatu beharra dago txapelketaren hasiera zertxobait atzeratu dela, antolatzaileek Zumaiakorekin izan



duten liskar bat medio. Izan ere, porteri eske Zumaiako zuzendaritzarengana jo zutenean, azken hauek 125 mila pezeta eskatu zizkieten, urtebeterako alokatzearen truke. Plaierozaleak, ordea, ez ziren ados, diru kantitate hori astakeria iruditzeaz gain, Zumaiakok publikoki plaieroak antolatu nahi zituztenek beraien atea zabalik izango zituztela adierazi ostean, ez baitzitzaien jokaera hau zuzena iruditzen. Azkenean, eta elkarren artean adostasun batera iritsi gabe, Zumaiakori eskatzen duena ordaintzea erabaki dute, joku itsusi hau datozen urteotan errepikatuko ez duelakoan.

Ohitura den moduan San Telmo festen

inguruan emango zaio amaiera txapelketari. Bi multzotan banatu dira partaideak (aurten 13 talde ariko dira), eta multzo bakoitzeko lehen hirurek liga jokatu dute. Lehen ligaxkan hirugarren postutik atzera geratzen diren gainontzekoek Kopa jokatu dute. Multzoak hauek dira:

◀ ENEKO DORRONSORO

A Multzoa:

Oskarbi, Ipurbeltz, Buitraker, Txixapa, Kalari, Siete Mares, No Soluxion.

B Multzoa:

Axier Kirolak, Txikixa, Trapaia, Inpernupe, Arroa, Basarri.

BELARDENDA



SIWA

Izaga Garcia
DIETISTA

Esther Blanco
OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia

- Merkantiak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416

fidatzeko baimen guztiak



Jintan
ZUMAI



Alai auzategia, 2

Tel. 943 14 33 24



Erribera kalea

Tel. 861523

Pulpo, ezin hobeto

Zumaiarrek 20-18 irabazi zuten Urdanetaren aurka eta sailkapeneko bigarren postuan dira lehen sei jardunaldiak jokatu eta gero

Sei partidu jokatu, ezin esan Pulpok orain arte egindakoa kasualitatea izan denik. Zumaiarrek ederki hartu diote neurria mailari, eta sailkapeneko bigarren postuan dira, aurkari gogorren aurka jokatu ondoren. Azken partiduan, Bizkaiko Urdanetaren aurka neurtu behar izan zituzten indarrak Lubaki kiroldegian, eta Txintxillaren jokalariek ez zuten kale egin. Urdaneta Lehen Mailako talde onenetakoa da, jokari guztiek ederki ezagutzen dute elkar, eta erasoan erraz egiten dute gola. Pulporen aurka, ordea, 18 gol baino ez zituzten lortu, eta horrek ederki adierazten du zumaiarrek defentsan lan izugarria egin zutela. Ezbairik gabe, hortxe egon zen partidua gakoia. Urdanetak lehen hamar minutuetan gol bakarra egin zuen, eta etxekoek markagailuan tartea egiteko aprobe txatu zuten. Lehen zati osoan zehar hiruzpalau golekoa izan zen aldea. Partidua kontrolpean zuten zumaiarrek, eta harmailetan bildutako jendea gozaten ari zen. Baina oraindik onena iristeko zegoen.

Bigarren zatiak aurrera egin zuen heinean Urdaneta berpiztu egin zen. Jokin Esnalek eta Iñaki Sorazuk min hartu zuten belaunean eta hainbat minututan ezin izan zuten jokatu. Horrek arazoak sortu zizkion Pulpori eraso behar bezala burutzeko, eta azken minutuetan Urdanetak partidua berdindu zuen. Partidua galtzeko

zoriar izan ziren zumaiarrek, baina berriro defentsako lanean aurkitu zuten irtenbidea. Partidua 18na berdinduta zegoela, Urdanetak baloia zuen eta lehen aldiz partiduan aurreratzeko aukera. Pulpok baloia berreskuratu beharra zuen nola edo hala partidua irabazi nahi bazuen. Defentsan bikain aritu ziren. Asierrek baloia lapurtu eta kontraeraso bizian gola egin zuen. Zoramena harmailetan.

Sei partidu, bederatzita puntu

Pulpok lau partidu irabazi ditu, bat berdindu (Burgosen) eta bestea galdu (Eibarren Arrateren aurka). Gainera, sailkapenari begiratu gero, Pulporen aurkariak ez dira Lehen Mailako ahulenak izan: Arrate lehen postuan da, Astillero hirugarren, Urdaneta bosgarren eta Ferroplas Burgos zazpigarren eta Teka zortzigarren. Garbel Zaragoza izan da guztien artean eskasena. Pulpok erakutsi du jadanik Lehen Mailako taldea dela. Txintxillak denboraldi hasieran sailkapeneko erdialdean ikusten zuen taldea, eta oraingoz horrek izan behar du taldearen helburua. Gero, lesioek taldea errespetatzen badute eta taldeak joko maila honi eusten badio...

Esنال eta Sorazu, min hartuta

Jokin Esnal eta Iñaki Sorazuren lesioak dira une honetan gauzarik kezkarriena. Biek min hartu zuten

belaunean eta ikusi beharko da datorren partidurako zeharo osatzen diren. Hurrengo aurkaria Donostiako Egia Juggers taldea izango da. Egiak denboraldi hasiera ona egin du eta sailkapeneko laugarren postuan da, zazpi punturekin. Partidu garrantzitsua da zumaiarrentzat, irabaziz gero zulo polita egingo luketelako laugarrenarekiko.

◀ GORKA ZABALETA



Sailkapena

TALDEA	J	I	B	G	PT
1. Arrate	6	5	1	0	11
2. Pulpo	6	4	1	1	9
3. Astillero	6	4	1	1	9
4. Egia	6	3	1	2	7
5. Urdaneta	5	3	0	2	6
6. Huesca	6	2	2	2	6
7. Burgos	6	2	2	2	6
8. Teka	6	2	1	3	5
9. Trapagaran	6	2	1	3	5
10. Hondarribia	6	2	1	3	5
11. Mahay	5	2	0	3	4
12. Beti Onak	6	1	2	3	4
13. Corbeton	6	1	1	4	3
14. Zaragoza	6	0	2	2	2

ILEAPAINDEGIA
TRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373

ZINE FORUM

Azaroak 18, osteguna

Illuminata (1999)
Zuz: John Turturro

Azaroan Zumaian ikusteko aukera izango dugun filma eder hau John Turturro aktore karismatikoaren bigarren zuzendari lana da. Aktore bezala ezagunagoa, Spike Leeren *Do the right thing* eta *Jungle fever* eta Coen anaien *Muerte entre las flores* eta *Barton Fink* filmetan izan dugu bere talentuaz gozatzeko aukera. 1992an kameraren beste aldera egin zuen salto, eta bere aitari dedikatutako *Mac* filma egin zuen. Ez zen hura inolako maisulana, baina bai duintasun maila mantentzen duen filmea. Aurreko urtean berriz ere filma bat zuzentzea erabaki zuen Turturrok, eta horrela sortu zen *Illuminata*. Oraingoan Turturrok berak hain ondo ezagutzen duen antzerki munduan murgildu da. Aurreko mende amaierara salto egin eta dramaturgo bat eta antzerki konpainia bateko aktore nagusia den bere emaztearen arteko maitasun istorioa kontatzen digu Turturrok. Ez da, ordea, horretara mugatzen filma hau. Tartean aktore gazteen beldurrak, kritiko homosexual beldurgarri bat, maldaz behera doan "diva" bat, burua galduta duen aktore zaharra. Aktoreak ere oso ezagunak dira: John Turturro, Susan Sarandon, Christopher Walken, Ben Gazzara, Leo Bassi... Hitz gutxitan antzerki munduari eginiko omenaldi ederra eskaintzen digu John Turturro paregabeak *Illuminata* honetan.

Abenduak 2, osteguna

Gato negro, gato blanco (1998)
Zuz: Emir Kusturika

Abendu hasiera horretan bere tartea izango du zinemaldi guztietan maitatua den Emir Kusturica Sarajevoko zuzendariak. Honakoan beso azpian Veneziako zinemaldian sari nagusia jaso zuen *Gato negro, gato blanco* filma bizi eta alaia ekarriko digu. Honako honetan ere Kusturicak berak hain ondo ezagutzen duen Balkanetako ijitoen abenturak jorratzen ditu: dirua lortzeko dituzten zailtasunak, maitasun istorioak, ezkontzak etab. Eta dena hildako bat berpiztu araziko lukeen musika batez lagunduta. Filma alaia, ez-ohizkoa, agian denon gustukoa izango ez dena. *Gato negro, gato blanco* hau Europako zinegile garrantzitsuenetako baten azken lana da, eta zinea egiteko modu ezberdin bat ikusteko aukera bikaina.

Irakurketarako aukerak

Euskaraz

Dublindarrak
Artistakume baten erretratua
Ez
Enaz banaz
Haizea mindu gabe



James Joyce
Dylan Thomas
Manu Erzilla
Xabier Amuriza
Jon Gaztelumendi

Gaztelerez


La felicidad de la tierra
Madera de boj
Las dunas de Indonesia
El último judío
Pactos secretos



Manuel Leguineche
Camilo José Cela
Adriaan Van Dis
Noah Gordon
Pedro Ugarte

Haurrak/Gaztetxoak

Pikoak
Kazkazuri
Ilargia ditarean
Salomondarrak
Ostadarraren zazpi atek



Juan Kruz Igerabide
Antton Kazabon
Patxi Zubizarreta
Pello Esnal
Karlos Santisteban

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 862083

julio curiel

G PELUQUERO

Gizonezkoentzat
ileapaindegia

Erribera kalea, 23

Loredenda

JEMAR

LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK

Erribera, 1 Tel. 860375

azaroa

22

DIPOSITIBA SAIOA

Manoli Barrenetxearen "Argentina al completo"

► Azaroak 22, arratsaldeko 4:30etan
San Juan egoitzan

ERAKUSKETA:

Iñaki Olazabal-en eskulturak

► Azaroaren 5etik 21era
Oxforden

ERAKUSKETA:

Cristina Pujalteren pintura bilduma

► Azaroaren 8tik 20ra
Forondan

KONTZERTUA

Ozenki Zortzikoa

► Azaroak 12, arratsaldeko 7:30etan
Aita Marin

ANTZERKIA

Louvier's taldearekin "Louvier's story" antzerkia

► Azaroak 13, gaueko 10:30etan
Aita Marin

HITZALDIA

Michel M. Marmier sendagilearen eskutik "Evitar los problemas de column en la vida diaria"

► Azaroak 18, arratsaldeko 7etan
Forondan

ZINE FORUM

John Turturroren "Illuminata"

► Azaroak 18, gaueko 10:15etan
Aita Marin

26

ANTZERKIA

Tanttaka taldearen eskutik "El florido pensil"

► Azaroak 26, gaueko 10:30etan
Maria eta Josen

28

ZUMAIA ETA DEBAKO MUSIKA BANDEN KONTZERTUA

► Azaroak 28, eguadiako 13:00etan
Maria eta Josen

abendua

2

ZINE FORUM

Emir Kusturicaren "Gato negro, gato blanco"

► Abenduak 2, gaueko 10:15etan
Aita Marin

11

ORGANO KONTZERTUA

M. Carmen Azpeitia eta Myriam Ulangaren eskutik

► Abenduak 11

16

ZINE FORUM

Bernardo Bertolucciren "Asediada"

► Abenduak 16, gaueko 10:15etan
Aita Marin

IKASTAROA

taichi ikastaroa, hilean 6.000 pezeta

► Urte osoan zehar
Siwa belardendan

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

PINTURA TAILERRA

LIBURUTEGIA

Helduentzat

► Astegunetan, 9:30 - 13:30 eta
16:00 - 20:00.

Larunbatean, 10:00 - 13:00

Haurrentzat

► Astelehenetik ostiralera, 16:00 -
20:00

ARTXIBO HISTORIKOA

► Egùnero, 10:00etatik 13:00era

INTERNET

Helduen liburutegian.

► Astegunetan, 10:00 - 13:00 eta
16:30 - 19:30



HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A

Tel. 862081



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



KABI

TBERNA - ZUMAI

Tel. 143379

3 zumaiar

Gipuzkoako artista berrien lehiaketan

Aurten 38 urte bete dituen lehiaketa 1920tik aurrera egiten da. Azken urteetan aldaketak jasan ditu eta bi urtetik behin egiten da orain eta desagertu dira garai bateko pintura, eskultura eta argazkia sailkapenak. Gipuzkoako artista gazteak laguntzeko sortu zen lehiaketa honetan zumaiarrek ez dute presentzia handirik izan azken urteetan, nahiz eta ospatu zen lehendabiziko urtean, 1920an, Julio Beobidek eskultura lehen saria irabazi eta Balenziaga arruarrak hirugarrena pinturan 1928an eta aurrena 1931n.

Azaroaren 14an zabaldu zen erakusketan aukeratutako 30 artisten lanak ikus daitezke Koldo Mitxelena kultur uneko erakusketa aretoan. 200etik gora artista aurkeztu ziren eta epaimahaiak 30 aukeratu zituen hiru sari jasotzeko gai izango zirelakoan. Horien artean 3 zumaiar zeuden: Aran Santamaria, Jon Ander Garzia (Itziar Garziarekin batera egindako lanekin) eta Jon Mantzisor.

Aran Santamaria eta Jon Mantzisorren bina lan aukeratu zituzten erakusketan jartzeko eta Jon Ander eta Itziar Garziarenak hiru.

Ezusteko handia izan zen Jon Mantzisorri emandako hirugarren saria, Zapatillak izeneko lanak jaso baitzuen banatzen den hiru sarietako bat. Jonen lana ez da erraza izango ulertzeko, aretoa zaintzen duen azafatak jantzita eraman behar dituen modako zapatilla arruntak besterik ez dira eta. Artelanaren mugak zabaltzen dituen lana da, artearen izaeraren inguruko hausnarketa egiteko aukera ematen diguna bestalde. Ez da ohiko objektu artistikoa, ekintzan gauza fisikoan baino gehiago oinarritzen baita.

Gauza bera gertatzen da Jonek aurkeztutako beste lanean ere. Ironia handiz artearen munduari egindako kritika zorrotza da, nahiz eta sinpletasunez eta injenuitatez mozorrotu. Jonek aukeratutako 3 artistaren lana kopiatu ditu, arteak objektu bakarrari ematen dion gehiegizko garrantzia zalantzan jartzeko, artisten arteko kompetentzia basatia, aukeraketa prozesu bera eta agian lehiaketa bera.

Aran Santamariaren lanak espazioaren erabilpenean eta espazio hori aktibatzen duten objektu berezietan zentratzen da. Gela ilun batean

jarritako instalazioaren bidez alegiazko paisaje batean sartzen gaitu. Etxea, hodeiak eta argiak mundu poetiko goxora eramateko ahalmena du. Beste eskulturak ere soinua eta argiaren bidez buruko eta bihotzeko alde batzuek mugitzen ditu gure perzepzioa zabaldu arte.

Jon Ander eta Itziarrek egin dituzten hiru lanak oso ezberdinak dira. Artisten gaztetasuna igertzen da hiru esparru ezberdinetan egindako frogak izango balira bezala: bideoinstalazioa, eskultura (objektutik hurbilago) eta argazkia. Baina frogak izateko izugarritzko indarra daukate eta lan borobil xamarrek direla iruditzen zait. Bideoak transmititzen duen ezintasuna eta seriotasuna, argazkiaren arintasunarekin eta poetikotasunarekin orekatuta dago. Apal baten gainean urez beteta dauden botilen lanak berriz erakusketan dagoen eskultura lan interesgarrietakoa da.

Hau guztia ikusita esan daiteke Zumaiako artista gazteen maila ez dela edozein moduzkoa, Gipuzkoako onenen artean daude eta, erakusketan ikus daitekeen bezala.

◀ ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA

INMOBILIARIA



BIDAIAK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

TALAI-MENDI
DEKORAZIOA

- * Eskaiola
- * Pintura
- * Pladur
- * Erreformak oro har

ENKARGUAK: Juan Belmonte, 35
Tel. 929-550574



liburuak
aldizkariak
CDak
komikiak
eta
fantzineak

ERRIBERA 10
TEL: 943 86 21 14



J
A
T
E
T
X
E
A

- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 862517



Kresala
— edergintza —

- * Depilaketa (beroa, epela)
- * Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- * Aurpegia edertzeko sendabideak
- * Gorputza edertzeko sendabideak
- * Lurrindegia
- * Solarium-a


Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

KUKUTZ

serigrafia

- *kamisetak
- *txiskeroak
- *paperezko poltsak, e.a.

baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69



Kalakariak eta "Atrakoya!"

Zumaiako Kalakariak Antzerki Taldeak "Atrakoya!" izeneko antzezlan berria aurkeztuko du datorren abenduaren 10ean, ostirala, Azpeitiko Zelaitxo antzokian bertan ospatzen den Euskadiko XVII. Antzerki Topaketan barne. Antzezlan hau Kalakariak antzerki taldeko partaide beraiek idatzi dute eta Inaxio Tolosa izango da zuzendaria.

Orain bi urte Azpeitiko Topaketetan "Luma beroak" lan banguardista aurkeztu bazuten, oraingo "Atrakoya!" honekin komediara hurbildu dira aktore zumaiarrak. Eta zertaz doan antzezlan hau? Horretarako taldeak aurkeztutako laburpena irakurtzea izango da egokiena: "Atrakoya! izenburuak dioen bezala, banku batean gertatzen den lapurreta baten inguruan giroturik dagoen obra da.

Gure herrietako bankuak, gizartearen ispilu zuzena direla jakinik, hainbat eta hainbat pertsonaia igaroko dira sukurtsaletik, bakoitzak bere arazoa azalduko duelarik, ordaindu ezin diren kredituak, itxurakeriaz beteriko burgesak, egungo gazteriaren estresa... Baina badu ezberdintasun txiki bat banku honek, sukurtsaletan egoten den giro egokitu hori, aireberritu egin da eta freskura sartuko da barruraino. Zorakeriak, bertsoak, presak eta piropoak, denak entsalada berean. Hori bai, andaluz puntu batekin, ele, arza, quillo, ariquitau!"

Goian aipatu den andaluz puntu horrek kezkatzen du zertxobait Inaxio Tolosa zuzendaria, ez baitaki jendeak ondo hartuko duen antzezlaneko bi pertsonaia zentralek lan guztia gaztelaz egitea beste guztiek euskaraz

egiten dutenean. Inaxiok argi utzi nahi izan duen puntu bat lanaren idazketarena da. "Atrakoya!" Kalakariak taldeko partaide beraiek idatzi dute. Mahaian eseri eta aktore bakoitzak bere pertsonaia landu du, ez da inongo inprobisaziorik izan. Antzezlan hau idazteaz gain, eszenografia eta atrezzoaz, jantzieta eta makilaiaz arduratuko dira antzerki taldekoak.

Orain arte, entsaioak Oxford aretoan egiten dituzte, baina Maria eta Jose antzokira pasako dira aurreko gela txikia geratu baitzaie. Entsaio orokorra abenduaren 6an izango da eta ondoren... estreno mundiala.

◀ JUAN LUIS ROMATET

ttikittaka

haur oinetakoak
 BALTASAR ETXABE Z/G TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAIA

TXALAPARTA
 O P A R I A K
 Angeles Sorazu, 2
 Tel. 143089

ESTAZIO Kalea, 25. 20.750 ZUMAIA
 GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.800 ZARAITZ
 (GIPUZKOA)
 Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

TXINGURRI
 Koop. Elk.
 Nekazaritza Injineru Teknikoak
 Jardinen diseinu
 ... mantenimendua
 Nekazaritza zerbitzuak
 Kirol zelaien mantenimendua
 Txostenak ...
 aholkularitza teknikoak,
 Balarazkoak

AIZPURUA
 L I B R U D E N D A
 Aita-Mari auzategia, 17
 Tel. 943 861569

LEIZE
 taberna
 Juan Belmonte, 6 Tel. 860415

Loitz
 * Eskola eta bulegorako materiala
 * Enkoadernazioak
 * Fax publikoa
 * Aldizkari eta opariak
 Erribera, 4 Tel./Faxa: 143422

Tindersticks, melodrama bizia

Bi arrazoi ditut talde britainiar honi buruz aritzeko: alde batetik, "Simple pleasures" izeneko disko berria atera du Stuart Staples abeslaria buru duen taldeak; bestetik, urriaren 24an Donostiako Victoria Eugenia antzokian egon ziren zuzenean bere kantu berri eta zaharrak jotzen. Arrazoi ezin hobeak momentu honetako talde bitxienetako bati orrialde bat eskaintzeko.

Tindersticks taldea hamarkada honen hasieran sortu zen Ingalaterran. Taldekide ugariko taldea, sei musikari guztira, hasieratik bere tartea lortu zuen Britainia Handiko musika munduan egiten zuten, eta duten, musika triste, melankolikoari esker. Musika oso partikularra jotzen duen talde honek 1993an atera zuen bere lehen diskoa, taldeak bezala, "Tindersticks" izena zuena. Gure lurretara ez zen disko hori heldu, baina bai 1995ean kaleratu zuten izen berdineko "Tindersticks" txundigarria. Lehen disko hura nahiko latza bazen, balada ikaragarriei soinu gordina batzen zitzaiona, bigarren hau, hasieratik klasiko bat bihurtu zen. Balada horietan guztiz murgildu ziren eta gainera efektu oraindik handiagoa lortzeko orkestrazio paregabeak sartu zizkioten. Emaiza txundigarria, ikara-



garria lortu zuten britainiarrek. 1997an "Curtains" diskoa aurkitu genuen dendetan. Oraingoan ere kanta ederrak, paregabeak, musika munduan bakarrak direla konfirmatzen dituztenak. Agian, nire ustez, aurrekoa bezain ona ez, baina hala ere, erostea, eta behin eta berriz entzutea merezi duena. Disko hauetaz gain, postaz bakarrik eros daitezkeen diskoak ere kaleratu dituzte eta hemen inork ikusi ez duen filma frantses batentzat ere soinu banda firmatu zuten. Orain hilabete pare bat "Simple pleasure" disko berria kaleratu dute, eta tituluagertzen den sinpletasun hori kanta berrietan aurki daiteke. Agur orkestrazioak, gora sinpletasuna. Disko motxa (aurrekoek

ordu bete baino gehiago irauten zuten), kanta gutxi baina ederrak. Badirudi beraien estilo triste horretan ez zutela estankatuta geratu nahi eta muga hestu horietatik ihes egin dute. Ez da aurrekoak bezain disko borobila, baina orain entzungai dugun ia edozein disko baino hobea da dudarik gabe.

Disko berria aurkeztera etorri ziren urriaren amaieran Donostiara, eta bertan entzungai izan genuena mirari hutsa izan zen. Telonero ilun batzuen ondoren, Stuart Staples eta bere taldea atera eta makina martxan jarri zuten. Kontzertuak iraun 105 minutuetan emozioa, negarra, samina, melodrama izan genuen taula gainean. Bibolinjole harrigarri bat (nola sor daiteke halako musika ederra?), piano eta organo soinu izugarria, destakutzen ez bazuen ere bere tokia zuen gitarra bat, baxu eta bateriak osatutako erritmo sekzio gerezin bat eta denen aurrean Stuart Staplesen ahots sakona. Talde paregabea, beharrezkoa dudarik gabe. Nik, taldearen jarraitzaile bezala, inoiz arrakasta masiborik ez edukitzea oparo diot Tinserssticksi, ze ondo dakigu zer gertatu zaien talde askori 40 principales eta halakotan agertzean. Egoismoa nire partetik? Bai, eta zer...

◀ JUAN LUIS ROMATÉ



ile-apaindegia
Rakel

Rakel estetika: kiromasajeak
ETXEZARRETA, 9 tatuajeak
TEL: 943 86 10 21 makilajeak

M

MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA


- ALARMAK
- ANTENAK
- . Banakakoak
- . Kolektiboak
- . Satellite bidezkoak
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ETA ABAR...

Axular, 14Tel. 860074 - 861569

MILA ILE APAINDEGIA

Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA



Garai betean Zumaian petroleoa izan zitekeela pentsatu zuten. Bila ibili ondoren ez zuten aurkitu guztion patrika beteko zuen isurki beltza.

TXOKO TABERNA



Artadi auzoa
Tel. 862189

AROZTEGIA
Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505

xirula



Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

ILE APAINDEGIA

herea uranga

Etxezarreta, 19 Tel. 862342

GIANO

Paperdenda LIBURUDENDA
Aldizkariak
Fotokopiak Baltasar Etxabe, 7
Enkuadernazioak Tel. 143191



zein: Silvestre Alberdi

zer: teologoa

nola: Teo

Hitz gutxitan, ezaiguzu zer den teologia.

Hitz gutxitan. Teologia bi hitzez osatzen da: Teo eta Logia. Teo, jakingo duzun bezala, komikietako pertsonaia bat zen, eta Logia, ...baaaaa, hori Logia, logia masonikoak eta abar. Hitz gutxitan Teo pertsonaiaren logia masonikoa.

Teologiak ez al du ba Jainkoarekin zer ikusirik?

Baliteke. Eskolan zerbait entzun nuen Jainko horri buruz, baina, egia esan, ez nizuke ziurtatuko. Badakizu, ikasketa urte hoietan hormonak toperaino izaten ditugu eta nik Sor Citroenekin gehiago pentsatzen nuen Teo edo Jainko horrekin baino.

Teologo bezala, euskal Jainko partikular hauek, Xabier Arzalluz, Javier Clemente, Fermin Muguruza, egunen batean Jainko unibertsalak bihurtuko al dira?

Errepikatzen dizut nik Jainkoari buruz ezer gutxi dakidala, baina aipatzen dituzun izen horiek jainkoen antza baino demonioena gehiago dituzte.

Hainbat urte ondoren konturatu gara Espiritu Santua azken finean uso bat besterik ez zela. Gauzak horrela, ehiztariak, Espiritu Santu hiltzaile bezala, ateo hutsak besterik ez dira, ezta?

Eeeh? Esto, beno badakizu, usoa kazuelan sartzen den momentuan eta ingrediente egokiekoin kozinatu ondoren, nahiko goxoa ateratzen da. Horixe da nire ustez zeure galderaren erantzun bakarra.

Azken galdera. Milenioaren amaiera gainean dugu. Zure ustez, munduaren akabera al dator milenio aldaketa honekin?

Ja, ja, ja, ja... Ez zaitez inozoa izan. Nola amaituko da mundua urte bukaera honetan, Goenkale kulebroiko pertsonaiek beraien arazoak arreglatu ez badituzte.

kakaute hori.... haundia izango den dagoeneko, baino alper xamarra ere badirudi. bultza andria!!!

ZALLA
 Taberna - Erretegia


- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387

 **Zerbitzu Ofiziala**

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143

 **Zumaia Hotela**

Alai Auzategia
 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
 TEL: 943 14 34 41
 FAXA: 943 86 07 64

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza Tel. 861440

 **OSA BARNIZATUAK**

Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
 Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 861412

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era fuztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

Zumaiko herri aldizkaria
BALEIKE

700
aldizkari salgai,
zuk erosteko zai

honako puntu hauean:

OKINDEGIAK:

ERROTA:

Basadi
Erribera
Juan Belmonte
Alai

OGI BERRI:

Amaiako plaza
Basadi
Erribera

ARKUPE

LIBURUDENDAK:

AIZPURUA
LOITZ
OLANO
TAOSA

JANARIDENDAK:

ALAI
ZUBIMENDI

.BERNAK

INPERNUPE
NARRONDO
ZALLA

BESTELAKOAK:

ARROA BEHEKO ESTANKOA
FOTO GAR

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA


ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO




Urolthermik

Arotzia Metalikoa



POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko atek eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA